



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

EZ DIRA ONARTU KULTURAREN ETA ADMINISTRAZINO PUBLIKOAREN AURREKONTUEI EGINDAKO ZUZENKETA-ESKEAK

- Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak 2021eko kontuei jarritako 150 zuzenketa-eske parzial eztabaidatu ditu gaur.

(*Bilbon, 2021eko zezeilaren 11n*). Bizkaiko Batzar Nagusiek aurrera jarraitzen dabe beharrean, zezeila amaitu baino lehen lurraldeak aurrekontuak izan daizan. Gaur, Ogasun eta Finantzetako Batzordean egin dan zuzenketa-eske parzialen eztabaidaren laugarren egunean, 144 zuzenketa-eske parzial jarri dira mahai gainean, Euskara, Kultura eta Kiroletako, eta Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetako foru sailletako kontuen testu arauemoileak txukuntzeko. Halanda be, oposizioaren zuzenketa-eske guztiak bertan behera geratu dira, Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabelako.

Osoko bilkurak berretsi ezker, aurtun 49,7 milioi euroko aurrekontua izango dau Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, eta gaur goizean onartu diran 13 programen artean banatuko dira, ezelango aldaketa barik. Batzarretako taldeek 65 zuzenketa-eske aztertu ditue lehenengo saioan: 13, Talde Bereziarenak; 36, Elkarrekin Bizkaiaarenak; eta 16, EH Bildurenak. Saio berean, Bizkaikoa eta Euskalduna Jauregia foru-erakundeentzat eta Azkue, Bizkaialde eta Juan Crisostomo de Arriaga fundazioentzat erreserbautako zenbateko ekonomikoak onartu dira.

Ibone Bengoetxeak zuzentzen dauen sailak, barriz, 70,8 milioi euro mobiduko ditu guztira. Ogasun eta Finantzetako Batzordearen bigarren saioan, 17 programatan banatutako kontu horreek be Batzarren iragazkia igaro dabe, eta ez da oposizino taldeek erregistrautako 79 zuzenketa-eskeetako bakar bat be onartu. Talde Berezia-PPBk osoko bilkurarako gorde ditu bere 6 zuzenketa-eskeak. Elkarrekin Bizkiak gauza bera egin dau Administrazio Publikoaren eta Harreman Instituzionalen aurrekontuari aurkeztutako 46 zuzenketa-eskeakaz, eta baita EH Bilduk be bere 27 aldaketa proposamenakaz. Bizkaiko Batzarrek ez ditue onartu udal finantziarioa aldatzeko 6 zuzenketa-eskeak, eta Lantiken, Zugaztelen eta Biscaytik Fundazioaren aurrekontuak onartu ditue.

SAIOAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Barikuan, zezeilaren 12an, Bizkaiko Batzarrek saio bat programatu dabe 09:30ean, Garraio eta Mugikortasun saileko 28 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko. Eta astelehenean, zezeilaren 15ean, zuzenketa-eske parzialen eztabaidea Ogasun eta Finantzetako sailagaz bukatuko da. Saio horretan 27 zuzenketa-eske bozkatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

RECHAZADAS LAS ENMIENDAS A LOS PRESUPUESTOS DE CULTURA Y DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

- **La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia ha debatido hoy un total de 150 enmiendas parciales a las cuentas de 2021.**

(Bilbao, a 11 de febrero de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia continúan con el proceso para que el territorio cuente con unos presupuestos antes de que concluya este mes de febrero. Hoy, la Comisión de Hacienda y Finanzas, en la cuarta jornada de debate de las enmiendas parciales, ha puesto sobre la mesa un total de 144 enmiendas parciales para pulir los textos normativos de las cuentas de las áreas forales de Euskera, Cultura y Deporte, y de Administración Pública y Relaciones Institucionales. Sin embargo, todas las enmiendas de la oposición han decaído por el voto contrario de los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

Si lo ratifica finalmente el pleno, el departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte contará este año con un presupuesto de 49,7 millones de euros que se repartirá entre los 13 programas del departamento que han sido aprobados esta mañana sin ningún cambio. Los grupos junteros han tratado en la primera sesión del día un total de 65 enmiendas: 13, del Grupo Mixto; 36, de Elkarrekin Bizkaia; y 16, de EH Bildu. En la misma sesión se han aprobado las cuantías económicas reservadas para los entes forales Bizkaikoa y Palacio Euskalduna, y las fundaciones Azkue, Bizkaialde y Juan Crisóstomo de Arriaga.

Por su parte, el área que dirige Ibone Bengoetxea moverá un montante global de 70,8 millones de euros. En una segunda sesión de la Comisión de Hacienda y Finanzas, estas cuentas, repartidas en 17 programas, han pasado también el filtro parlamentario sin que se haya aceptado ninguna de las 79 enmiendas que habían registrado los grupos de la oposición. El grupo Mixto-PPB ha reservado para el pleno sus 6 enmiendas. Elkarrekin Bizkaia ha hecho lo propio con las 46 enmiendas que había presentado al presupuesto de Administración Pública y Relaciones Institucionales, al igual que EH Bildu con sus 27 proposiciones de cambio. La Cámara vizcaína ha desestimado 6 enmiendas para modificar la financiación municipal y ha aprobado los presupuestos de Lantik, Zugaztel y Fundación Biscaytik.

TRANSPORTES Y HACIENDA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Mañana, **viernes**, a partir de las 9.30 horas, se debatirán 28 enmiendas al Presupuesto de Transportes y Movilidad Sostenible. Y el **lunes 15**, el debate de las enmiendas parciales concluirá con las cuentas de Hacienda y Finanzas, en la que se votarán 27 enmiendas, más otras 26 al texto Articulado.